

# IGANDE ETA JAIEGUNETAN ITXITA!

Azken hilabeteetan zenbait interesek igande eta jaiegunetan irekitzeko beharraren "eztabaida" berriro ere kalera atera dute.

Ez da lehenengo aldia, ezta azkena izango ere, non edozein aitzaki erabiliz, dendaren batek, aukeratu dien jendartea ordezkatu beharrean, zenbait enpresarien interesak ordezkatzeko hautua egiten duten politikoen babespean, jaiegunetan irekitzen hasten saiatzen den. Ekimen hauen atzean, orain eta beti, denok ezagutzen ditugun merkatal kate handiak daude, jaiegunetan zabaltzen hasteko edozein aukeraz baliatzeko beti prest.

Aitzakia, oraingoan, abenduaren 18an eta urtarrilaren 8an Bilbon hiru dendak irekiera da. Baina, aitzaki hau ez zaigu balio, ez merkataritzako langileei, ez merkatariei, ezta kontsumitzaileei ere.

Igande eta jaiegunetan dendak zabaltzeko saiakerak ez dute etenik. Borrókari esker, orain arte, sektorearen gehiengoak Euskadin jaiegunetan ez zabaltzea lortu da. Jaiegunetan irekitzearen kontrako borroka ez da lan arloko borroka bat soilik, liberalismo gordinenaren oinarritzako printzipioen kontrako borroka da, zeinek, beste batzuen artean, neurrigabeko kontsumoan oinarritutako harremanak bultzatzen dituen. Sindikatuek, merkatariek eta euskal kontsumitzaileek langileak bizi familiarra eta lana bateragarri egiten duen, denda txikiak merkatal kate handiekin lehiatu daitezkeen eta neurrigabeko kontsumoan soilik oinarritzen ez den aisialdia ahalbidetzen duen jendarte ereduaren aldeko apostua egiten dugu. Hau dela eta jendarte osoari igande eta jaiegunetan irekitzearen kontrako borrokan gurekin bat egiteko deia luzatzen diogu.

Horretarako **sindikatuek, merkatariek eta euskal kontsumitzaileek manifestazioa deitu dugu**, zeinetan partehartzera animatzen zaituztegun.

## MANIFESTAZIOA

**Martxoak 11, 12:00etan Moyua Plaza-Bilbo**

Sindikatuak, Merkatariek y Euskal Kontsumitzaileen Elkarteak